



TAXIEN MAHAIA

2023ko martxoak 14

GAI-ZERREDA:

1. Ongi etorria.
2. Informazioa
hurrengo gaiei buruz:
 - Onetsi da Bidaiarien alokairuko ibilgailuen nahierako zerbitzu publikoari buruzko Ordenantza.
 - Getxo udalerriko taxietarako ibilgailu elektriko berriak erosteko laguntzak, 2023an udalerriko taxi elektrikoen kopurua areagotze aldera.
 - Elkarrekin lokalak alokatzea
3. Galderak,
iradokizunak eta beste batzuk.

BERTARATUAK: % 67

DEITUTAKOAK	BERTARATUAK	ETORRI EZ IZANA	
		Arrazoiak emanda	Arrazoirik eman gabe
Taxi sektorea	José Ignacio López (BizkaTaxi presidentea)	X	
	Sergio Benito	X	
	Getxo Taxi Tour-eko ordezkaria		X
Getxoko Udala – Ekonomia Sustapeneko Arloa	Idoia Belasko	X	
	Mercedes Montalban	X	
	Aitor Zorrilla	X	

EDUKIAK

1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.



Getxo

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

Idoia Belascok, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, bilerara bertaratu direnak agurtu eta aurkeztu ditu; ondoren, gai-zerrendari heldu dio.

2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

a) Onetsi da Bidaiarien alokairuko ibilgailuen nahierako zerbitzu publikoari buruzko Ordenantza.

Idoia Belaskok jakinarazi du jada argitaratu dela ordenantza berria. Taxien elkarteak informazio-bilera bat egingo du martxoaren 16an (osteguna), elkarteko kideei araudi berriak dakartzan berrikuntzak azaltzeko, bai eta, esate baterako, taxian publizitatea jartzeko aukera jorratzeko ere.

b) Getxo udalerriko taxietarako ibilgailu elektriko berriak erosteko laguntzak, 2023an udalerriko taxi elektrikoaren kopurua areagotze aldera.

Idoia Belaskok jakinarazi du ibilgailu elektrikoak erosteko taxi-gidariarentzako 2023ko laguntzen deialdi berrian, hasiera batean, 25.000 euroko zuzkidura egongo dela, zeina 50.000 eurora arte handitu ahalko baita. Jose Ignaciok eta Sergiok adierazi dute hainbat kide dituztela ibilgailu elektrikoak erosteko interesarekin eta ziur asko agortu egingo dela laguntzaren aurrekontua. Sergiok nabarmendu du sektoreak mugikortasun elektrikoaren aldeko apustua egiteak udalerrian daukan garrantzia; adierazi du oraingoz 46 taxitik zazpi elektriko daudela. Aurreikusitakoaren arabera, urte-amaieran kopuru hori bikoitza izango da.

c) Elkarateak lokala alokatzea

Idoia Belaskok jakinarazi du harremanetan jarri dela Ondare Arloarekin, lokalaren emakidaren egoera erregularizatzeko aldera. Beste emakida bat eta aurrekorako jarritako fidantzaren itzulketarako eskatu behar dira (taxien elkarteko erregistroaren bidez egingo da eskaera).

Bestalde, Jose Ignaciok esan du garrantzitsua dela lokalaren gastu orokorren banakapena eta horien eguneraketa ezagutzeko.

3. Galderak, iradokizunak eta beste batzuk.

Jose Ignaciok eta Sergiok adierazi dute kezkatuta daudela UBER zerbitzuak udalerrian duen jardunagatik. Dirudienez, Algortan jarri dute basea eta 50 ibilgailu baino gehiago daude. Horrez gain, diote ez dutela soilik jatorrizko puntu batetik helmugarainoko ibilbidea egiten; aitzitik, udalerritik zirkulatzen dutela eta ikusi egin dutela UBER ibilgailuek bezeroak batzen zituztela taxien geralekuetan. Arazo horren harira, Idoia Belaskok esan du Poliziari jakinaraziko zaiola kontua eta bileraren bat egingo dutela batera. Horren ildotik, Mercedes Montalbanek gogorarazi du beste udalerriko batzuetako taxi-gidariak udalerrira sartzea kontrolatzeko xedez egin izan diren kanpainen ondorioz, gaur egun gehiago kontrolatzen dela kontua eta agian Poliziarekin egiten den bilera hori baliagarria izango dela ere UBER zerbitzuaren zalantza-jardunari disuasio-neurriak ezartzeko.

Mercedes Montalbanek esan du deialdia egingo duela taxien elkartearekin eta itsas geltokietako turismo-zerbitzuarekin biltzeko, Getxora heltzen diren gurutzantziko bidaiariei taxi-gidariak eskaini ahal dieten zerbitzua hobetze aldera. Dirudienez, iaz gurutzantziko bidaiariak kexaren bat jarri zuten itxarote-denbora dela eta.

Taxien elkarteak jakinarazi du elkarteak eguneratutako webgune berria izango duela hurrengo hilabetean, eta eskatu dute udalak webgunearen publizitatea egin dezala *GetxoBerriren* bidez.

Bestalde, Jose Ignaciok eta Sergiok eskatu dute taxien hurrengo mahai 12:00etatik aurrera egin dadila, 09:00etatik aurrera beharrea (ordu horretan izan da azken deialdi hau).

4. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea apirilaren 27an. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

TAXIEN MAHAIAREN ERABAKIAK (2022-03-14):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Fidantzaren itzulketa eta beste emakida bat eskatzea	Taxien elkarte	Bileratik aurrera
3. Beste lizitazio bat eskatzeko dokumentua bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Lokalaren gastu orokorren banakatzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
5. UBER zerbitzuaren zalantza jardunaren berri ematea Poliziari	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
6. Itsas geltokietako turismo-zerbitzuaren bilerarako deialdia egitea, gurutzantziko bidaiariak eskatzen dituzten taxi-zerbitzuen funtzionamenduari buruz aritzeko.	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
7. <i>GetxoBerrin</i> taxien webgunearen publizitatea jartzeko aukera aztertzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
8. Taxien mahaiaren hurrengo bilera 12:00etatik aurrera egitea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
9. Interesa duten udalerriko sektoreei (ostalaritza, kirol-aisialdia, gidak, merkataritza, etab.) taxietako publizitateari lotutako informazioa ematea.	Zerbitzuko teknikariak	Elkarteak proiektua prest daukanean



Getxo
bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica